


PCR POSITIBOEN KUDEAKETA

URRATSAK, ERAGILEAK ETA EPEAK



Zuen seme edo alabaren batek COVID-19arekin bateragarriak diren **sintomak baditu** edo **PCR proba egiteko zain badago**, **abisatu TUTOREAri**.



Zuen seme edo alabaren batek **positibo eman badu PCR proban deitu 626 041 077 telefono zenbakira**.

HURRENGO URRATSAK HAUEK DIRA:



Ikastolak Osakidetzari jakinarazten dio Ikastolako ikasle batek positibo eman duela PCR proban eta jakinaraztearekin batera **honako dokumentazioa bidaltzen dio:**

- a) Ikaslearen gurasoen izen-abizenak eta kontakturako telefonoa.
- b) Ikasgelako krokisa eta non esertzen den ikasle bakoitza.
- c) Gelako ikasle guztien zerrenda eta kontakturako telefonoak.
- d) Zerbitzuetako erabiltzailea den ala ez. Hala bada, zerbitzuaren inguruko informazioa.
- e) Azken egunetan ikasgelan egon den asistentzia.



Osakidetzak kasua aztertzen du eta **BERAK ERABAKITZEN** du zein izango den jokabidea.



Osakidetza bera jartzen da harremanetan PCRa egingo dieten ikasleen familiarekin

eta Ikastolari ere jakinarazten dio nori egingo dion. Batzuetan lehenengo familiei jakinarazten die eta ondoren Ikastolari eta beste batzuetan alderantziz.



Osakidetzak **24-48 ordu** behar izaten ditu erabakiak hartzeko, egunaren eta daukaten lan-kargaren arabera.

Beraz, ERABAKIAK OSAKIDETZARENak dira beti. Ikastolak informazioa ematen dio eta bitartekari-lanak egiten ditu. Ez du ezer erabakitzen edo aztertzen.